



LIBURUA

Bertan goxo?



CHARLOTTE PERKINS GILMAN
HORMAKO PAPER HORIA
 EDO!, 2012

AMAIA ALVAREZ URIA

Itxialdia egin behar izan dugu eta ahal bezain ondo egokitu egoera “berrira”, baina *Mediku Jaun* boteretsuak “gure ongizatea helburu” egin behar (ez) duguna esaten digun lehen aldia ez da izan egunotakoa. *Hormako paper horia* narrazioan ikusiko dugun moduan, XIX. mendean oso ohikoa zen “histeria” edo “depresio nerbiosoa” zutenek, euren rol femenino menpekotik ateratzen ziren emakumeek, “atseden sendabidea” egin behar izatea.

Esfortzu intelektual eta fisikoak baztertu eta etxean gordeta pasa behar zituzten egunak. Posible bazen, hiritik herrira ere eramaten zituzten harreman sozialak eragotziz. Eta ez zieten idazten uzten. Narrazio honetako protagonistari hori gertatu zaio eta, egu-

neroko batean, prozesu horren berri emango digu.

Horren kritika egin zuen Charlotte Perkins Gilmanek 1892an lehen aldiz ingelesez argitaratu zuenean. 120 urte geroago Ana I. Moralesek euskarara ekarri eta EDO! argitaletxeak gure eskura ipini du sarean.

Erreferentziazko testu feministatzat dute literatura ingelesean, eta interpretazio desberdinak egin dizkiote: zapalkuntza patriarkalari aurre egiten dion pertsonaia, literatur kritika feministaren metafora, prentsa sentsazionalistaren aurkako aldarria. Gaiari dagokionez emakumea eta zoramena da nagusi (“desoreka”, “auto-kontrola”, kolore horia), emakumeak eta idazketa ere bai (desiraren debekua), edo medikuntzaren eta ezkon-

tzaren izaera patriarkalaren salaketa.

Bere borondatearen kontra eta askatasuna murriztuta etxean sartuta dagoen emakume bat dugu, domestikatu nahi dutena, “bere lekuan” ezarri. Saioa Ruizek eta Amaia Serranok egindako hitzostean irakurri ahal dugunez etxea “kaiola” edo “kartzela” bihurtuko zaio.

Interesgarria iruditu zait bizi dugun larrialdi egoeran testu hau berrirakurtzea edo deskubritzea, izan ere, testuinguruak beste esanahi batzuk emango dizkio testua berrituz eta gaurkotuz. Irakurleak bizi (izan) duen itxialdia eta horren ondoriozko aldaketa fisiko eta psikikoak berrikusi ahal ditu testu honen irakurketaren bidez eta protagonistarekin beste kokapen batetik identifikatu. Probatu nahi? ●